

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Txaro Barrena Larruzea

*Amorebieta-
Etxano, Bizkaia
(1931-2022)*

Aurkibidea



Biografia



Bilbo eta Basauri arteko Bolueta auzoan jaio zen, bere gurasoak bertara ezkondu baitziren. Aita Zornotzako Aldana auzokoa zuen eta ama Etxanoko Ergoien auzoko Derteanobekoa baserrikoa. Eskolara Basauriko Kareagagoikoa auzora joan zen. Bertan bizi zirela, erdaraz egiten zuten bizimodua, baita etxean ere. 14 urtegaz amaren jaiotetxera joan zen eta bertan bizi izan da ordudanik. Senarra ere Aldana auzokoa du. AMO-067 grabazioa Zornotzako ahozko leku-izenak batzeko proiektuan parte hartu zueneko da.

Zintak

AMO-067

- **Proiektua:** Zornotzako toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Iruarrizaga, Rakel - Olabarri, Ane
- **Data:** 2008-05-17
- **Iraupena:** 9 min
- **Euskarria:** Audio digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Olabarri, Ane

AMO-113

- **Proiektua:** Zornotzako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2011-06-29
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Amantegi, Oihane

AMO-114

- **Proiektua:** Zornotzako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2011-06-29
- **Iraupena:** 38 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Solatxupeko iturria

- **Erref:** AMO-067/004

- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:02:42. **Bukatu:** 00:03:43
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

Garai batean etxe inguruan iturri bat zegoen: Solatxupeko iturria. Gerora, etxera ura jarri zutenean, galdu egin zen. San Isidroko erreka.

2. Etxakoxinagara edo Olabarrira errotara

- **Erref:** AMO-067/005
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:03:43. **Bukatu:** 00:04:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Etxakoxinagara edo Olabarrira joaten ziren errotara. Larrean ere bazegoen errota, baina hara ez ziren joaten. Hara Aldana aldekoak joaten ziren. Inguruko auzo edo auzuneak.

3. Derteano eta Derteanobekoa

- **Erref:** AMO-067/007
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:04:40. **Bukatu:** 00:06:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Amorebieta-Etxanoko toponimia: eraikinen izenak. Etxe-multzoak daude: Derteanon hiru etxe daude, Derteanobekoa bi. Izenaren jatorria eta ahozko era. Inguruan San Juan ermita dago. Urtean behin egoten da meza eta, horregatik, San Isidrorra joaten dira.

4. Boluetako bizimodua erdaraz

- **Erref:** AMO-113/004
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:05:44. **Bukatu:** 00:07:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Umetan Boluetan bizi zen eta bertako bizimodua erdaraz egin zuen. Lagunek

ez zekiten eta nebarekin ere horrela egitera ohitu zen. Morgako familia bat heldu zen auzora, eta maistrak bertako alabari laguntzeko eskatu zion bazekielako euskalduna zela.

Transkripzioa

- Orduen zure ume sasoko bizimodue erderaz izen zan.
- Bai, bai, bai, bai, bai, erderaz, erderaz. Euskeraz ez giñun bapez eitten, eskolan be...
- Ta nebiegaz be erderaz?
- Ez, ez, erderaz, erderaz. Bakizu kostunbria galdu ezkeru euskera, aittu eitten dozu ta eitten botsue eitten dozu, baia ia eguneko tertulixe erderaz.
- Ta dana, lagunekaz, eskolan...
- Lagunekin [...] erderaz eitten gendun. Ni akordetan naz eskolan, maistriak jakin euen nik euskeraz dakiana, ta gu eskolara gabizela, etorri zien orduen Morgatik ta hortik leku askotatik jentia. Baskonian eitten uen biher, ta Baskonian gero ba etxiak eta emoten otsiezan. Ta famili bet etorri zen Morgatik ta eskolara hara gurera hasi zen, ta neskiak ez euen jakin kasi erderarik ta maistriak esate osten niri, Rosario deittuten ostien eskolan, Txaro ez, kanpoan beti Txaro, baia maistriak Rosario ta esaten osten: "Ayúdale a esa a ver lo que dice o lo que hace", baia nik jakin neuen, e! Neuetzako ondo jakin neuen, baiña ein ez giñun eitten.

5. Dotrina eskola baino garrantzitsuago

- **Erref:** AMO-113/005
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:07:01. **Bukatu:** 00:09:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Basauriko Kareagagoikoa auzoko eskolara joan zen. Maistra Portugaletetik etortzen zen egunero. Eskolara gustura joaten zen, baina ez zitzaion garrantzirik ematen. Dotrina garrantzitsuagoa zen. Dotrinara eta konfesatzera joan bazina edo ez kontrolatzen zuten. Eskolako denak ziren kaletarrak, ez zegoen baserritarrik.

Transkripzioa

- Ta Basauriko ze eskolatara, ze euzotara?
- Basaurin izen zan, oin barrixe ein die ta etxe asko dau oin. Ni ibilli nintzenien eskolara ez zien egon hiru lau basarri tte hiru lau etxe baño, baia oin dau Basauri!
- Ze auzo zan ha?
- Kareagagoikoa izen zan, bai, Kareagagoikoa. Eskolia on zan ta maistria Portugaletetik etorten zan, pentseizu! Lelengo trena hartzen euen Portugaleten Bilboraiño, han San Antoneko, San Anton ez, Arenaleko zubixen ondoan geltzan zan trena. Handi zertu ta tranbixe hartzen euen Arriagan ta etorten zan, eskolia baino beherau euen tranbixe ta oiñez zati beten! Hak urtengo euen etxien "vete a saber" ze orduten bederatzitako eskolara etorteko! Ba goixeko zazpietan be igual!
- Ta eskolako akordu onak dekozuz?
- Eskolakoak danak dakiaz akorduen.

- Joe, baina ondo diñot.
 - Bai.
 - Gustora juaten zinen eta...
 - Ni bai, ni bai. Ni eukitten neuen urtetako, orduen hamalau urtaz eskolatik urtetan zan ta. Gero joan gure izen /guxen/ bazan zeuzer zertuten, ikesten-edo, baia orduen zerik pez, modurik be ez zan egoten zertzeko.
 - Klaro, ta neskak gitxiau, ezta?
 - Horixe ba.
 - Mutillek igual.
 - Mutilek ofizixue ikesten euen edo "carpintero, ebanista", nire nebiak be ebanista ikesi euen. Orduen estudixoa ba ez zan dirurik egoten ta pagetako be, orduen dirurik ez zan egoten...
 - Dotriñak inportantzi gehixau.
 - Puf! Dotriñara egun guztitan eskolan be ta gero zapatu-domeketan joan biher izeten /bixeten/ giñun han parrokiten euki erien zera, lokala, zinia-ta emoteko lokala, ta harixe joaten gintzezan katekismora, dotriñera harixe. Baiña ta gero eskolara joaten gintzezanien kurtzetxue joan bazara konfesetan, komulgetan, dotriñera joan bazara ta kurtzetxue eitten eurien joan bazara, ez bazara joan jakiteko.
 - A bai? Ta ez bazaren joan?
 - Ez bazara joan, igual kastigue, "vete a saber"! Billurraz danak joaten gintzezan-ta! Atzien gelditu ez ittiarren, danak joaten gintzezan, danok, ta bueno.
 - Ta eskolara joaten ziñienak zer ziñien, danok baserritarrak-edo?
 - Ez, ez, danak kaletarrak, e?
 - Danak kaletarrak.
 - Ez, danak kaletarrak.
 - Ze zuen etxie be ez zan baserriko...
 - Ez, ez, pisue zan, pisue, pisue zan, bai, bai, bai, bai, pisue, pisue zan, gure etxia pisue zan.

6. Gerran etxea utzi behar

- **Erref:** AMO-113/006
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:09:42. **Bukatu:** 00:12:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra Zibila Bilbon bizi izan zuen. Etxetik alde egitea egokitu zitzairen, eta Santanderrerranzko bidea hartu zuten. Etxera bueltatu zirenean, teilatua zulatuta zutela-eta, beste etxe batera joan behar izan zuten konpondu arte.

Transkripzioa

- Orduen zuk baserriko bizimodurik ez dozu ein umetan!
 - Ez.
 - Gero ein zara.
 - Gero ein naz, bai.
 - Ordun zuk gerrie be Bilbon bizi zundun.
 - Bai, bai, joan gintzezan ebakueute ez dait noraiño. Hori ba zenbat urte? "El año treinta y seis"ien, treintaisietien, sietien izen zan ebakuaziñoa, ba sei urte eitteko, ze setienbrekoa naz.

- Klaro, sei eitteko.

- Sei eitteko. Akordetan naz untxe Jesuseaz. Zelan juen gintzezan danok eta umiak eta autobus beten jente asko ta ez dait noraino joan gintzezan, lekuteraino joan gintzezan!

- Ta luzero-edo?

- Ez dot pentsetan. Gu han pentseten dot /pentsot/ zortzi egun edo paseu, ze gu egon gintzezan Santanderreko bidien eta pase zienien zerak, harantza tropak, gu ia etxerantza etorri gintzezan, baia gure gure etxiak kamiñoa deko eurreti ta atzeti norteko trena pasetan da ta zubixek dauz, ta zubixe errekan be han, errekia dauen lez zubixe, ta zubi bixek, goikoa ta behekoa, danak gerra denporan bota zertu ein zittuezan, bota eittuezan, bonbardieu-edo. Ta ez dakit zelan etorri gintzezan ba, danok batera etorri ta etxia be guria abiaziñoa zertute egon zalez, zulotute, goixe tailletue dana euriz beteta ta beste etxe baten edo bizi gintzezan harik eta konpondu arte.

- Orduen etxia apurtute.

- Apurtute tailletue! Apurtute goittik, ze zubixe bastante altu dau norteko trenen zerien, eta ..ba ..bota eurielez egon gintzezan zertute, beste etxe baten bizitten, beste lonjan baten edo ez dait nik zelan egon gintzezan harik eta konpondu arte, bai.

- Zeuona zan etxie?

- Ez, ez, ez, ez, ez.

- Arrentadorak-edo.

- Orduen ez zan egoten etxia. Uzandrak eoten zien han bizi zien ondoan ta, jenterik gehixena izeten zan zera arrentadoria. Orduen errentarik be ez zan egoten kasi bape ta, diru gitxi pagetan zan ta, pisuek ederrak, handixek, baia.

- Ta famili txikixe ziñien zuek.

- Bai ba, nire aitte eta anaixia bixi zien, ezkondu zien ta batera bizi gintzezan, baia gu nire lengusiñe nire edadekoa ta ni komuniñoa eindde ensegida joan ein zien harek. Nire tiok Lezamako estaziñoan, Bilbon, han Calzadas de Mallonan eitten euen biher, estaziñoan eta han emon otsien pisue, ta harek hara joan zien ta gero gu bakarrik.

7. Ur eta argi barik 1970era arte

- **Erref:** AMO-113/013
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:23:59. **Bukatu:** 00:27:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>1970. urtean jarri zuten ura etxean. Ordura arte zelan konpontzen ziren azaltzen du. Argirik ere ez zutenez, arropak eskuz garbitu behar izaten zituzten. Udan ur eskasia izaten zuten. Gaur egungo errepidea ere ez zuten.</p>

Transkripzioa

-Ure etxe barruen ezetu zendun umetan?
 -Ez, el año setentan ipini gendun ure.
 -Berandu! Berandu, e?
 -Hamen barrixo guztie ur barik egoten zan, ta gero...

-Itturrixeko edo eukingo zenden.

-Hor, txorroaz eiten notsen, patinien. Erropak garbiterako-ta harriz ipiñi, albo-albotik harriz ipinitte, eta holangoak, ostantzien... setentan, kontatu! bai. Geure umiak be, neska bixek bastante... zaharra handitxue - sei urten aldian dekietan- zaharra handitxue zan ipiñi giñunien.

-Ta ordura arte erropak eta dana eskuz?

-Bai, hortxe, bai, bai, eskuz, eskuz. Argirik be ez giñun eukitten-ta.

-Ta zelan garbitzen zenduezan erropak?

-Eskuz, jo hor zerien ta... Sartu, beratu, balde zabal baten sartu, jaboie bota hara, ta han ipiñi beratuten, eta gero eskuz. Latigo!

-Ta ze jaboie?

-Jaboie Chimbo-a, orduen ez zan egoten ez suabizanterik, ez labradorakurik edo zerik, ez ezebez.

-Heutse-edo ez zendun ezeutu?

-Bai, zera, "Escamas saquito" ta holango geuzek. Holango eskamatxuek, ta zakuen jaboie txinboaz eindre antza makiñen, eskamatxu modukoak, ta itzelezko usiñe-ta eukitten eurien. Erropak, kolorezkoak-eta, garbitzeko itzelezko zera eukitten euen, bai.

-Eta izerak eta?

-Izerak eta be beratu, eta ipiñi ur berotan ta gero jaboiaz, jaboie Chimbo-az, bai.

-Lejia ta?

-Bai, bai, bai, lejía-ta bai, bai, horrek bai. Lejia ta jaboie falteu barik, baia ez oingo moduko heutsek-eta ez. Pentseu be ez.

-Eta setentara arte holan?

-Setentara eon giñen. Kanpoan eukitten giñun ure eta neguen be kanpoan erropak garbitzen giñuzen.

-Ta neguen be ure eukitzen zenden nahikoa?

-Neguen bai nahikoa, uden ez. Uden gitxi, ze goitti etorten zan, ta hor goixen etxiak be bai ta bakotxak, ba, bere pozuek-eta eindre, ta hona, eskastxu eoten zanien, oingo moduko siketie eon ezkeru, urik ez zan heltzen. Ya San Juanetarako, oingo zererako, ez giñun eukitten kasi. Euki bai apurtxu bet, baia ez asko. Ta errekarat-ta joaten gintzezan, erropak garbitzen joaten gintzezan.

-Ta hemen errekie urrun dau?

-Hor San Isidrorat bid... ikusiko ziñun ermittie San Isidrona? Ba hortxe ondoan, hortxe errekatxue. Oin hori be ur gitxiaz juaten da, baia orduen ure egoten zan. Pozu bet eindre-ta eoten zan. Ta, ba, haraxe. Esnie be haraxe eruaten giñun, haraxe behera. Ze hamen ez zan kamiñorik egon, eta han egon zan lez kamiñoa, handik, ba, han erropak garbittu... Letxerue be hara etorten zan, ze Aldanara egon zan kamiñoa, Aldanara ez. Bueno, Aldanara be ein eurien... Aldanara ein eurien el año 55n edo holango baten hara be kamiñoa. Ostantzien, ez zan egon. Ta hemen geroau ein eurien. Hemen, hangoa, hori idxon dozune, eon zan, baia hortik eta hona behera ez zan egon kamiñorik. Eta astoa hartute joaten gintzezan hortik behera zerera be, Zorrontzara, plazara esaten giñun, errekauek ein ta. Bai.

8. Artilezko koltxoak

- **Erref:** AMO-113/014
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:27:29. **Bukatu:** 00:28:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Koltxoiak artilezkoa ziren. Hustu eta garbitu egin behar izan zen artilea berriro josi orduko. Arto-azalarekin (kapatxa) egindako koltxoiak ere ezagutu zituen.

9. Jaietako gonbidautzak eta jatorduak

- **Erref:** AMO-113/015
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:28:49. **Bukatu:** 00:30:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

Lehen askoz pozago bizi ziren bere ustez. Jaietan gonbidautzak egiten ziren eta poz handia ematen zien. Auzoko jaietan jatordu berezia egiten zuten. Oilaskoa egun berezietarako gordetzen zen.

10. San Juan jaiak

- **Erref:** AMO-113/016
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:30:40. **Bukatu:** 00:32:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

<p>Antzinako San Juanak zelakoak ziren azaltzen du. Inguruko herrietatik ere jende asko etortzen zen.</p>

Transkripzioa

-Lehengo Sanjuanak zelakoak izeten ziren?

-Bueno... Harek izeten zien Sanjuanak! Jente guztixe tanboliñe hasi orduko jantzan, ta pozik, soiñue jo ta jentie pozik, dana zantzoa ta dana barrie ta dana olgetie iziten zan, oin...

-Zantzoa esan dozu?

-Zantzoa. Ja, ja, ja, ezta? Zantzoa, irrintzia! Zantzoa esaten geuntsen guk, irrintzia. [Horra probatuten] zan irrintzi eitten euena, bueno! eta zelan? Ta pozik jentia! Ta jentia etxien, e, hainbeste jente ta hainbeste jente etorten zan, geubien, etxien, bertan geldittuten zien ta jentie sabaixen ta danetan lo, lo. Ta pozik! Pozik!

-Ta ze egoten zan? Mezie?

-Bai, bai ta erromerixe gero, bai.

-Erromerixe ta...

-Bai, bai. Gero jentie, ba ,etorten zan Muxiketik eta...

-Ta holan, aparteko gauzak edo bertsolarixek edo probak edo...?

-Ez, hemen probarik ez dot ezetu nik, ez, ez. Ez, hemen ez dot ezetu inoiz.

-Bertsolarixek eta holan ta...?

-Ez, ez, hemen ez dot ezetu holangorik nik, baiña behintzet soiñue ta tanboliñe ta... zera.

-Bizperie politte izengo zan.
-Bai, San Juan bizperia. Oin be eitten da San Juan bizperia. Hor, e, sue ein ta gero, barrixoko danak junteu eta bakotxak erueten deu gauze bat, batzuk tortilla, beste batzuk pernille edo beste batzuk ogixe ta holan, ta gero txufie ein, ta hor, bai. Oin be eitten da.
-Hemen egoten zan kantetako ohitturie San Juanetan? Kantaren bat edo San Juanetako kantie edo?
-Ez.

11. San Juanetako kanta

- **Erref:** AMO-113/018
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:32:39. **Bukatu:** 00:33:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

San Juan suaren inguruan abesten den kanta abesten du.

12. Gabonetako jana eta ohiturak

- **Erref:** AMO-113/020
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:34:00. **Bukatu:** 00:36:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

Gabonetako jatekoa: bakailaoa, oilaskoa, turroia... Bere gazte denboran karakolak ez ziren jaten; azalorea eta bisigua zen ohikoa. Hamabietako mezara (misa el gallo) joatea ere derrigorra zen. Txakur amorratuarentzako ogi koskorra moztu eta gordetzen zen.

13. "Erregen, erregen" abestia

- **Erref:** AMO-113/022
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:36:42. **Bukatu:** 00:38:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Katak
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

Azpira irina gordetzeko kutxari deitzen zioten. Errege eguna ere ospatzen zuten. "Erregen erregen" abestia abesten du. Etxerik etxe Santa Agedatan baino ez zuten abesten.

14. Basomartxo eta kandelario

- **Erref:** AMO-113/025
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:41:06. **Bukatu:** 00:44:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- Aisia » Jai-giroa » Kandelario Eguna

Laburpena:

Basomartxo eguneko ohitura. Karnabaletan ez zen ezer berezirik egoten, baina martitzenez ospatzen zen garizuma aurreko azken erromeria. Kandelario egunez ere jaten zituzten tostadak.

15. Hamarrenak

- **Erref:** AMO-113/026
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:44:08. **Bukatu:** 00:45:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

Laburpena:

Garizuma sasoiko bijilia derrigor egin behar izaten zen. Buldak ordaintzen ziren, hamarrenak, "diezmos y primicias" deiturikoa.

16. Lizarra, gurutzeak eta ur bedeinkatua

- **Erref:** AMO-113/027
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:45:43. **Bukatu:** 00:47:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk
- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

San Juanetan etxeko atarian lizarra eta soloetan gurutzeak jartzeko ohitura beti izan dute. Pazkoetako ur bedeinkatuarekin soloak bedeinkatzen ziren.

17. Bizkargirako letania eta San Juan denboraletik babesteko

- **Erref:** AMO-113/029
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:47:54. **Bukatu:** 00:50:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Natura » Meteorologia

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Txarok ezagutu duen letania bakarra Etxanotik Bizkargira egiten zena da; maiatzeko Santa Kurtzetan ospatzen zen. Eguraldi txarra egingo zuela aurreikusitakoan San Juan santua ateratzen zuten kanpora beraien auzoan.

18. Bizkargi eguna

- **Erref:** AMO-113/030
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:50:01. **Bukatu:** 00:51:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Bere gazte sasoiko Bizkargi eguna oso polita zela dio. Gustura egiten zituen etxeko lanak bertara joan ahal izateko.

19. "Tximista", "oñaztue", "hodaixe"

- **Erref:** AMO-113/031
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:51:07. **Bukatu:** 00:52:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

"Tximista" zein "oñeztue" bi berbak erabiltzen dituzte. Trumoiari "hodaixe" esaten diote.

20. Oinaztu eta trumoientzako kandela bedeinkatuak

- **Erref:** AMO-113/033
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:53:37. **Bukatu:** 00:54:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Oinaztuak (tximista) eta hodeiak (trumoi) hasterakoan kandela bedeinkatuak pizteko ohitura.

21. "Harria", "txingorra" eta "inetasia"

- **Erref:** AMO-113/035
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:56:33. **Bukatu:** 00:58:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

- Natura » Meteorologia

Laburpena:

"Harria", "txingorra" eta "inetasia" berbak desberdinu egiten dituzte. Horrelakoek eta haizeak inoiz egin die triskantzaren bat edo beste.

22. Ermandadea

- **Erref:** AMO-113/036
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:58:17. **Bukatu:** 01:00:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Ez du gogoan baserrian aseguru izaten zuten edo ez. Ermandadea izaten zuten, horren funtzionamendua azaltzen du. Bere aita zen "listerue", kontuak eramaten zituena.

23. Ugariagoak ziren pizti edo animaliak

- **Erref:** AMO-113/038
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:01:23. **Bukatu:** 01:02:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Basoko animaliak

Laburpena:

Lehen baziren hainbat animalia orain ikusten ez direnak: mixarra, igelak, kirikolatzak... Zapaburuari zelan deitzen dioten.

24. Eskolan jarraipena, mezetara eta konfesatzera joan ote ziren

- **Erref:** AMO-114/003
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:02:38. **Bukatu:** 00:05:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Konfesatzeko ezer ez izan arren, konfesatu egin behar izaten zuten. Gaueko hamabietatik aurrera, ezin izaten zuten urik edan ere. Eskolan jarraipena egiten zieten, mezetara eta konfesatzera joan ote ziren.

25. Maiatzeko loreak eta San Isidro

- **Erref:** AMO-114/005
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:08:22. **Bukatu:** 00:09:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk

Laburpena:

Maiatzeko loreak eta San Isidro eguneko ospakizuna zelakoak izaten ziren kontatzen du.

26. Senarra soinujolea

- **Erref:** AMO-114/006
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:09:57. **Bukatu:** 00:12:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Bere senarra soinujolea izan da; solfeoa eta soinua jotzen ikasi zuen Bilbon. Dantzan egiten zuten gizonetzkoek hogeita bosna zentimo ordaintzen zioten soinujoleari.

27. Tergalezko arropak, ongi lixatuta

- **Erref:** AMO-114/008
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:14:23. **Bukatu:** 00:17:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Apaintzea

Laburpena:

Tergalezko arropak eta abarketak janzten zituzten erromeriarako. Orraztu eta makilatu egiten ziren; berari ez zitzaion gustatzen makilatzea. Depilatu ez da egin izan, beharrik ez zeukalako. Lixatzeko zela moldatzen ziren azaltzen du.

28. Hainbat erremedio

- **Erref:** AMO-114/009
- **Iraupena:** 0:04:31. **Hasi:** 00:17:41. **Bukatu:** 00:22:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Errez gero, ur hotzetan eduki eta ondoren olioia ematea da ona; erleak ziztatuz gero, berakatzarekin igurtzi. Hesteetako bizioentzat labatibak egiten zituzten. Katarroarentzat jarabea izaten zen eta lepoko minarentzat partxeak. Zaldarrak berotutako tipularekin sendatzen zituzten. Katarroarentzat esnea eztiarekin hartzen zen, baita koñakarekin ere.

29. Hilekoarentzat oihalak

- **Erref:** AMO-114/010
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:22:12. **Bukatu:** 00:25:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

Hilerokoari buruz ez zuten berbarik egiten. Oihalezko konpresak erabiltzen zituzten. Ez ziren dutxatzen hilerokoarekin; debeku asko izaten zituzten hilerokoarengatik.

30. Umeentzat oihalezko pardelak

- **Erref:** AMO-114/011
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:25:50. **Bukatu:** 00:28:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:

Oihalezko pardelak erabiltzen zituzten ume txikientzat. Zelakoak izaten ziren azaltzen du. Zorrientzat likido bat botatzen zieten buruan.

31. Garai bateko sehaskak

- **Erref:** AMO-114/012
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:28:24. **Bukatu:** 00:30:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:

Sehaskak egurrezkoak eta eragiteko modukoak izaten ziren. Artilezko koltxoiak jartzen zizkieten.

32. Umeen izenak euskaraz eta erdaraz erregistratu behar

- **Erref:** AMO-114/014
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:33:57. **Bukatu:** 00:36:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Umeen izenak berak aukeratu zituen. Udaletxean erdaraz erregistratzen zituzten eta elizan bietara. Gerora aldatu zituzten izenak paper ofizialetan.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com